

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2022ko urtarilaren 8tik 14rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/12

- Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den hegazti- eta untxi-hiltegien sektoreko hitzarmen kolektiboa. **476 xedapena - 57 or.**
- Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den segurtasun-enpresen 2022rako Estatuko hitzarmen kolektiboa. **477 xedapena - 71 or.**
- Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den drogeria eta lurrindegien txikizkako merkataritzaren hitzarmen kolektibo nazionala. **478 xedapena - 86 or.**
- Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den metalaren sektoreko industriaren, teknologia berrien eta zerbitzuen Estatuko hitzarmen kolektiboa. **479 xedapena - 173 or.**
- Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den kredituko kooperatiba-sozietateen XXII. hitzarmen kolektiboa. **480 xedapena - 39 or.**
- Akats-zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2021eko azaroaren 2koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren farmazia-bulegoen XXIV. Hitzarmen kolektiboko 2017., 2018., 2019., 2020. eta 2021. urteetarako ordainsarien taulak. **482 xedapena - 1 or.**

Día 14/01/2022

- Lan hitzarmen kolektiboak. - Ebazpena, 2021eko abenduaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den 2019-2022 aldirako bidaia-agentzien sektoreko Estatuko lan-hitzarmen kolektiboa. **594 xedapena - 70 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/13

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. - Antolamendua.** - 40/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa, Gobernuko Presidentetza berregituratzen duen uztailaren 26ko 634/2021 Errege Dekretua aldatzen duena. **490 xedapena - 4 or.**

2022/01/14

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza. Kontularitza.** - Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 10ekoa, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, 2011ko uztailaren 1ekoa aldatzen duena. Horren bidez, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten entitateei Kontularitza Publikoaren Plan Orokorra egokitzea onesten da. **559 xedapena - 14 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. - Material sanitarioa.** - Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 13koa, Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Zerbitzuen Zorro Komunaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den Medikamentuen Prezioen Ministerioen arteko Batzordearen 2022ko urtarrilaren 13ko Erabakia. Horren bidez, SARS-CoV-2aren autodiagnosirako antígeno-testak publikoarentzako saltzeko gehieneko zenbatekoak ezartzen dira, Sendagaien eta osasun produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 94.3 artikulua ezarritakoa aplikatuz. **560 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/01/10

- **LEHENDAKARITZA.** - HUTS-ZUZENKETA, honako lege honena: «10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena». **88 xedapena - 1 or.**
- **SEGURTASUN SAILA.** -AGINDUA, 2021eko abenduaren 20koa, Jaurkitzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez publikotasuna ematen baitzaio erregistro-betebeharrak eta Ertzaintza informatzeko betebeharrak betetzeko moduari, osagaien artean metal preziatuak

dituzten bitxi eta objektuen salerosketari eta birziklatzeari dagokienez. 89
xedapena - 6 or.

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA. -** AGINDUA, 2021eko abenduaren 28koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen baitira. 90
xedapena - 3 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2022/01/10

- **Gizarte Ekintza Saila. -** Bizkaiko Foru Aldundiaren 178/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 28koa. Honen bidez, 2022. urteko kreditu-mugari dagokionez aldatzen da 63/2001 Foru Dekretuko lehenengo xedapen iragankorra. Foru Dekretu horrek honako hau arautzen du: adinekoak foru egoitza publikoetan edota egoitza itunduetan sartzeko sistema eta adinekoak besteren egoitzazko gizarte zerbitzuetan sartzeko banakako laguntza ekonomikoak nola eman. I-5
xedapena - 2 or.

2022/01/14

- **Euskara, Kultura eta Kirol Saila. -** Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren 160/2022 FORU AGINDUA, urtarrilaren 12koa, zeinaren bidez erabakitzen baita etenda uztea 2021/2022 denboraldiko Bizkaiko Eskola Kirolaren Programako lehiaketako kirol-jarduera guztiak, 2022ko urtarrilaren 10etik 2022ko urtarrilaren 28ra bitartean. I-27 xedapena - 2 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2022/01/10

- Batzordearen 2022/20 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2022ko urtarrilaren 7koa, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 536/2014 (EB) Erregelamenduaren aplikatzeko xedapenak ezartzen diren, saio klinikoen segurtasuna ebaluatzeko Estatu kideen arteko koordinaziorako arauak eta prozedurak ezartzeari dagokionez. L 5/14 xedapena - 12 or.

2022/01/11

- Batzordearen 2022/26 Erregelamendu Delegatua, 2021eko irailaren 24koa, zeinaren bidez osatzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/2033 (EB) Erregelamendua, inbertsio zerbitzuen enpresa batek porrot eginez gero, bezeroen diruaren babesa bermatzeko kontu bereziaren kontzeptua zehazten duten erregulazio-arau teknikoei dagokienez (Testu egokia, EEEn ondorioak izan ditzan). **L 6/7 xedapena - 2 or.**
- Batzordearen 2022/27 Erregelamendu Delegatua, 2021eko irailaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen den Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 236/2012 (EB) Erregelamendua, akzioetan posizio labur garbi esanguratsuak jakinarazteko atalase egokiaren doikuntzari dagokionez (Testu egokia, EEEn ondorioak izan ditzan) **L 6/9 xedapena - 2 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO